

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“Miñaogutxin (Araba) A-3604 errepidea egokitzeko eta urbanizatzeko eraikitze proiektua”-k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2021eko maiatzaren 4an egindako bilkuran, 248/2021 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Onespena ematea “A-3604 errepidea Miñaogutxin (Araba) egokitzeko eta urbanizatzeko eraikitze proiektuak” eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, okupatu beharrekoa dela adieraztea, presazko okupazioaren adierazpena egitea eta kreditua atxikitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 9ko 643/2020 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi ziren “Miñaogutxin (Araba) A-3604 errepidea egokitzeko eta urbanizatzeko eraikitze proiektua” eta proiektua gauzatzeko eragindako ondasun eta eskubideak banan-banan jasotzen dituen hasierako zerrenda zehatza, bai eta nahitaezko jendaurrean jartzeko izapidea betetzea ere.

Alegazioen izapidea bete da, eta ez da alegaziorik aurkeztu. Beraz, proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onartu behar da, honako hauek kontuan hartuta egina: Gasteizko 4. Jabetza Erregistroak emandako jabariaren eta kargen ziurtagiriak, desjabetze espedientearen 8/000 finkan eragindako ondasun eta eskubideen titulartasuna Arabako Foru Aldundiaren alde, eta landa egoeran eragindako finka jakin batzuen ureztatze aprobetxamendua.

Horrez gain, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adierazi behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espediente Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela, eta, ondorioz, okupazioa presakotzat jo behar dela. Ildo horretan, Errepide Zerbitzuak jakinarazi du Arabako Errepideen Plan Integralak (2016-2027) jasotzen duela “Sarea egokitzea eta hobetzea” programaren barruan (“Trazadura hobetzea eta plataforma zabaltzea” azpiprograma) A-3604 errepidearen zatia, Mendarrozketa eta Miñaoko Parke Teknologikorako sarbidearen artean, trazadura hobetu eta plataforma zabaltzeko jarduna.

Tarte horren barruan dago Miñaogutxiko zeharbidea, oso zeharbide estua, 5 metro baino gutxiagoko zabalerako galtzarekin, bazterbiderik gabea eta ertzetan oinezkoentzako inolako egokitzapenik gabea, eta zenbait eraikin (nekazaritzako pabiloia eta teilapea) errepidearen galtzadari itsatsita dituen, errepidearen jabari publikoko zona okupatuz. Gainera, Miñaogutxitik igarotzen den zatian eta aldamenekoetan, errepidearen oinplano eta altxaera trazadurak parametro guztiz eskasak ditu, eta, ondorioz, errepiderako sarbideak ikuspen urrikoak dira, eta bide segurtasunaren ikuspegitik tarte arriskutsua da.

Inguruabar horiek guztiek eta, bereziki, oinezkoen eta ibilgailuen trafikoa fisikoki bereizita ez egoteak, eta errepiderako sarbideetan ikuspen faltak bide segurtasuneko arazoak sortzen dituzte, batez ere erabiltzaile ahulenentzat, hau da, oinezkoentzat.

Beraz, beharrezkoa da A-3604 errepidearen erabiltzaileen bide segurtasuna hobetzea Miñaogutxitik igarotzen den zatian, bai eta haren ertzen hirigintza baldintzak hobetzea ere; izan ere, beharrezkoa da urbanizazio lanak Arabako Errepideen Plan Integralean A-3604 errepiderako Miñaogutxitik igarotzen den zatian jasotako aurreikuspenetara egokitzea, bai oinplanoko eta altxaerako trazadurari dagokionez, bai haren sekzioari dagokionez, erabiltzaile guztien bide segurtasuna -ibilgailu zein oinezkoena- bermatzeko konponbidea hartzeko xedearekin.

Premiazkotzat jotzeko izapiderako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 46 1.b) artikuluan xedatutakoari jarraituz, bai eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz ere.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (autonomia erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremani buruzkoa) 7.a.8. artikuluan eta ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoa) 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak aukeran du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzea, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak, 2.1 artikuluan.

Erakunde honen barruan, Foru Gobernu Kontseilu hau da organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta haiek okupatu beharra onesteko, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26) artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera ere.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. Onespena ematea "A-3604 errepidea Miñaogutxin (Araba) egokitze eta urbanizatzeko eraikitze proiektuak" eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari. Eranskinean jasotzen da.

Bigarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeari begira.

Hirugarrena. Presazkotzat jotzea erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunen eta eskubideen okupazioa eta desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan xedatzen duen presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Laugarrena. 41.212,74 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko aurrekontuko "Desjabetzeak" 50106.5300.6000002 partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-1264/000.21.1.21), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta xedapen erreferentziaren kontura. Zenbateko hori ordainduko da Desjabetze Atalaren buruaren proposamen txostena aurkeztu eta gero, eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Seigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko titularri ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontua Betearazteko urtarilaren 26ko 1/2021 Foru Arauaren 16. artikulua.

Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.”

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsuaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespena gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko Lege eta Administrazio Zerbitzuko Desjabetze Ataleko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 10a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ**

Bide Azpiegituren eta  
Mugikortasunaren Saila  
Departamento de Infraestructuras  
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aukundia  
Diputación Foral de Álava

MIÑAOGUTXIN (ARABA) A-3604 ERREPIDEA EGOKITZEKO ETA URBANIZATZEKO ERAIKITZE PROIEKTUA  
PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE ACONDICIONAMIENTO Y URBANIZACIÓN DE LA CARRETERA A-3604 EN MIÑANO MENOR (ÁLAVA)

| FINKAREN ZK. | TITULARRAREN IZENA  | KATASTROKO DATUAK<br>POLIGONOA   LURZATIA<br>DATOS CATASTRALES<br>POLIGONO   PARCELA | UDALERRIA         | APROBETXAMENDUA                                       | ERAGINDAKO OINDASUNA   | ERAGINDAKO AZALERA m <sup>2</sup> |   | ORDUA |
|--------------|---|--|-------------------|---|--|-----------------------------------|---|-------|
|              |   |  |                   |   |  | EGUNA                             | ERAGINDAKO AZALERA m <sup>2</sup><br>SUPERFICIE AFECTADA m <sup>2</sup><br>DEFINITIVA |       |
| Nº FINCA     | NOMBRE DEL TITULAR  |  | TERMINO MUNICIPAL | APROVECHAMIENTO                                       | BIEN AFECTADO  | DIA                               | HORA  |       |
| 4/000        | JESUS MARIA LLANO LOIZAGA   | 38 88  | VITORIA-GASTEIZ   | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO            |  | 17/6/21                           | 9:00  | 515   |
| 5/000        | JESUS MARIA LLANO LOIZAGA   | 38 52  | VITORIA-GASTEIZ   | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO            |  | 17/6/21                           | 9:00  | 844   |
| 13/000       | JESUS MARIA LLANO LOIZAGA   | 38 57  | VITORIA-GASTEIZ   | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO            |  | 17/6/21                           | 9:00  | 215   |
| 1/000        | JULIO LLANO LOIZAGA   | 38 46  | VITORIA-GASTEIZ   | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO            |  | 17/6/21                           | 10:15   | 949   |
| 3/000        | ANGEL RUIZ DE MENDARZOQUETA FERNANDEZ DE LUCO<br>JOSE RUIZ DE MENDARZOQUETA FERNANDEZ DE LUCO<br>JAVIER RUIZ DE MENDARZOQUETA FERNANDEZ DE LUCO<br>MARIA BELEN RUIZ DE MENDARZOQUETA FERNANDEZ DE LUCO<br>ENRIQUE RUIZ DE MENDARZOQUETA FERNANDEZ DE LUCO | 38 89  | VITORIA-GASTEIZ   | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO            |  | 17/6/21                           | 11:45   | 487   |
| 10/000       | CIPRIANO ORTIZ DE ZARATE PEREZ DE GUERENU<br>MARIA DEL CARMEN ORTIZ DE ZARATE PEREZ DE GUERENU<br>JOSE MARIA ORTIZ DE ZARATE PEREZ DE GUERENU<br>HROS. DE BIASA FERNANDEZ DE GAMARRA SAENZ DE BURUAGA<br>LUISA FERNANDEZ DE GAMARRA SAENZ DE BURUAGA      | 38 64  | VITORIA-GASTEIZ   | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO            |  | 17/6/21                           | 12:45   | 352   |
| 14/000       | AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ   | 38 65  | VITORIA-GASTEIZ   | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO            |  | 17/6/21                           | 13:30   | 138   |
| 11/000       | AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ   | 38 21  | VITORIA-GASTEIZ   | BIZITEGH-LURZORU URBANIZATUA / URBANIZADO RESIDENCIAL | MARKESINA / MARQUESINA   | 17/6/21                           | 14:15   | 102   |
| 12/000       | AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ   | 38 11  | VITORIA-GASTEIZ   | BIZITEGH-LURZORU URBANIZATUA / URBANIZADO RESIDENCIAL |  | 17/6/21                           | 14:15   | 250   |
| 15/000       | JOSE GUENECHEA ORTIZ DE MENDIVIL  | 38 59  | VITORIA-GASTEIZ   | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO            |  | 18/6/21                           | 9:00  | 346   |
| 18/000       | PEDRO OCARIZ RUIZ DE AZUA   | 38 55  | VITORIA-GASTEIZ   | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO            |  | 18/6/21                           | 9:45  | 78    |
| 2/000        | LUIS JAVIER GONZALEZ DE MATAICO BASABE<br>NATIVIDAD BASABE LOPEZ  | 38 90  | VITORIA-GASTEIZ   | LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO            |  | 18/6/21                           | 10:30   | 685   |
| 16/000       | HROS. DE JESUS LANDA GONZALEZ DE SARRALDE<br>M. LUISA FERNANDEZ DE LARREAANDA   | 38 58  | VITORIA-GASTEIZ   | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO            |  | 18/6/21                           | 12:00   | 346   |
| 17/000       | JUNTA ADMINISTRATIVA DE MIÑANO MAYOR / MIÑAO<br>JUNTA ADMINISTRATIVA DE AMARITA<br>JUNTA ADMINISTRATIVA DE MIÑANO MENOR / MIÑAO GUTXIA<br>JUNTA ADMINISTRATIVA DE RETANA  | 38 56  | VITORIA-GASTEIZ   | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO            |  | 18/6/21                           | 12:45   | 235   |
| 9/000        | JUNTA ADMINISTRATIVA DE MIÑANO MENOR / MIÑANO GUTXIA  | 38 8   | VITORIA-GASTEIZ   | BIZITEGH-LURZORU URBANIZATUA / URBANIZADO RESIDENCIAL |  | 18/6/21                           | 13:30   | 45    |
| 8/000        | DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA   | 38 2   | VITORIA-GASTEIZ   | BIZITEGH-LURZORU URBANIZATUA / URBANIZADO RESIDENCIAL | ERBAKIN OSAGARRIAK / EDIFICACIONES AUXILIARES<br>BARATZEA / HUERTA | 18/6/21                           |   | 186   |
|              |   |  |                   |   |  |                                   |   | 191   |

Esp./Expte. 2020/6